

OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:

- Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC delakoak, itxi dira, edo ordutegiak murriztu dira.
- Osasun etxeetan izugarritzko profesional gabezia dago. Ondorioz, profesional batek, gainerako enpresak bete behar izaten ditu eta egunerokotasunean 45 kontsulta izatera hel daiteke. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitatezko arreta bermatzea.
- Hainbat eta hainbat osasun etxeetan azken urte luzeetan eskaini diren eta egonkortuta zeuden zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.
- Aurrez-aurreko kontsulta lortzea gero eta zailagoa izaten da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.
- Adinekoren eta kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak daude.
- Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.

Hau guztia ez da pandemiaren errua, ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa ahultzeko eta pribatuaren alde egiteko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta honen guztiaren ondorioak herritarrok (pazienteok) jasaten ditugu.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritzak kontrakoa egiten ari da.

Herri askotan medikura joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarritzko eskubide baten aurkako eraso bat baizik, pertsona guztiok kalitatezko osasun arreta publikoa jasotzeko eskubidea dugulako, eta hori da orain arriskuan dagoena.

Tolosaldean egoera hau are larriagoa da. Ezin dugu ahaztu Tolosaldea dela eskualdeko ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra, non enpresa pribatu batek Osakidetzak eman beharreko zerbitzu publikoa hitzarmen bidez ematen duen. Negozioan oinarritutako eredu honen ondorioz urte asko daramatzagu oinarritzko osasun zerbitzuen gabezia pairatzen, etekin ekonomikoa herritarren osasun eskubidearen gainetik kokatu baita. Asuncionen inguruan arazoak arazoaren gainetik izaten ari dira eta egoera honetan kaltetuenak herritarrak izaten ari dira.

Hori dela eta, Tolosako udalbatzak:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoiaren barne, herri honetako osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatu ditzala.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunez mediku egoiliarren kontratazio-eredua aldatu dezala, kontratu egonkorrak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, aztertzea Osakidetzan kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arreta eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handitu dezala. Diziiplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatrak, fisioterapeutak eta ariketa fisikoaren arloko profesionalak.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bermatu dezala Invizarekin duen hitzarmena betetzen dela, langileen kopurua eta lan baldintza duinak, eta herritarrei legez dagokien kalitatezko osasun arreta jasotzen dutela ziurtatuz.

5.- Tolosako Udalak aurreko puntu hauen guztien jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du.